

## Barañaingo Udalarekin gertatua

Barañaingo Udalaren 1994ko deialdi batean euskara jakitearen alde punu emateagatik, epaile batek 1997ko otsailaren 20an Nafarroako Epaitegi Gorenera salakuntza aurkeztu zuen alkatearen aurka. Eta, gertakizun hori, Euskaltzaindiak, erakunde ofiziala den aldetik, gorago salatu du alkatearen alde. Aldi berean, herriaren jakingarri, prentsaurrekoan adieraziz. Erakunde bezala beharturik zegoenez.

Euskaltzaindia 1918an Nafarroako eta beste hiru probintzietako diputazioen babespean sortutako Euskararen Akademia da eta, jakina denez, bere helburu nagusia euskararen etorkizuna eta iraupena bermatzea da. 1976ko otsailaren 26ko Erret Dekretuak onartu zuen erakunde bezala jatorrizko arautegia barne. Dekretuaren hitzaurrean erregearen hitzak diotenez berriz: "euskara munduko gizadiaren bitxi baliotsu-baliotsua izanik, Euskaltzaindiaren zeregina da. Erresumako kultura eta altxorraren zati handi bat den eta espainiar askok erabiltzen duten hizkuntza honen batasuna bultzatzea".

Jakina da, nahi dutenek badakitelatela eta nahi ez dutenek jakin beharra dutela. Neri dagokidan partetik, gertatuaren arabera, egiaren aldeko salakuntza egitera behartzen naiz. Euskararen beharrak eta kazetaritzaren maltzurkeria agirian jarriz.

Bilbon 1997ko apirilaren 25ean eman zen prentsaurrekoari, joera batekoek eta bestekoek, hau da, *Egin, Deia, Euskaldunon Egunkaria, Diario de Navarra, El Correo* eta *El Diario Vasco* deritzan egunero-koek goian aipatzen dudan zatia kendu zioten. Beraz, ez dekretu eta ez erregeren hitzik ez zuten eman aditzera. Eta gai hauetaz ezer ezdakiten herritarrek pentsa zezaketen, zer eskubide zuen Euskaltzaindiak epaitegiaren aurka eta Udal baten alde jartzeko. Zeren aurreko zati hori kentzeaz herriaren jakinerako bilutzik gelditzen bai da Euskaltzaindiari legez dagokion eskubidea, taldekerien gaintik dagoenez erregeren agindua. Ikus adierazpena bere osotasunean *Euskera*, agerkarian, 42. liburukia (2. aldia), 1997, 193-196. orrialdeetan euskaraz eta gazteleraz.

Hor ageri denez, kazetaritzan ere taldekeriak muturretik muturre-ra. Baina, erregeren babesa ukatuz, inork ez dio onik egin euskarari, ez Euskaltzaindiari eta gutxiago Bara-

ñaingo Udalari. Nora erori gara ? Azken batean, jokera bateko eta besteko kazetariarentzat, taldekeria euskara baino lehen. Hau da itsutasuna!

*J. San Martin*